

FITXA: 197 - ARABA - Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriek udalerri barruko garraioa finantzatzeko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia.

Nori zuzendua:

Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriak

Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde **Deialdiaren data:** 2026/02/16
Historikoaren Aldizkari Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-transporte-intermunicipal-municipios-menores-20000-habitantes>

Erreferentziazko araudia: 51/2026 Foru Agindua -
https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/020/2026_020_00385_E.pdf

Eragin eremuak: Ingurumena; Garraioa

Zenbatekoa: 55.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/02/17

Aurkezteko azken eguna: 2026/03/17

Aurrerakina:

Aurrerakinaren gehieneko %a: % 100

Dirulaguntzen ordainketa osoa ehuneko 50eko bi ordainketatan egingo da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu

Gutxieneko zenbatekoa: 3. klausulan deskribatutako unitate-moduluak aplikatuz zehaztuko den zenbateko aldakorra.

Laburpena

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren eta Lurralde Antola menduaren Sailak Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei udalerri bakoitzaren lurralde eremuan soilik egiten den barruko garraioa finantzatzeko aurrekontuko kredituen kontura emango dituen dirulaguntzak emateko bete behar diren betekizunak, bete beharrak eta prozedura ezartzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira Arabako udalerri horiek beren lurraldeko hainbat guneren artean sustatzen eta kudeatzen dituzten garraio publikoko ekintzak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.18) artikuluan esleitutako eskumen propioetik eratortzen direnak.

Zerbitzua udalarena izan behar da, zerbitzua erakunde publiko batek zein pribatu batek eman.

Garraio linea bakoitzeko gehienez 6.300,00 euroko dirulaguntza emango da urtean, eta udal bakoitzeko gehienez 10.500,00 eurokoa urtean.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den jarduera 2026ko ekitaldian hasi behar da gauzatzen, eta 2026ko abenduaren 31rako amaitu beharko da.